



*Herri edota eskualde baten bizi-mailaren adierazgarriak haren ekonomia garapenean datza, eta hura bereziki baldintzatzen du haren industria garapenak. Enkarterrietan ez dago ez bata, ez bestea. Eskualdeko egoerari buruzko analisia egingo bagenu, ikus genezake Enkarterrian geratzen den enpresa handi bakarra CEL dela. Hura, hala ere, ixteko arriskuan dago erakundeen konfiantza izan zutenek egin kudeaketa txarragatik eta Eusko Jaurlaritzak nahiz Bizkaiko Aldundiak nagikeriaz jardun eta baztertu zutelako.*

CELez gain, enpresa txiki batzuk besterik ez dira geratzen (Mondi, Glefaran eta beste gutxi batzuk). Bertako altzairugintza, etengabeko gainbeheran dabilena, ezin daiteke Enkarterriko ekonomia-garapenaren eusletzat har.

Hirugarren sektorea ez dago hobeto: nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak testigantzako izaera hutsa dute, gure eskualdeak dituen gaitasun eta baliabideekin alderatuta. Eta azkenik, zerbitzuen sektorea, izugarri prekarizatua dago, eta neurri handi batez aurreko biren garapenaren menpekoa denez, haren etorkizuna zalantzaragarria da, eta aukera urriak ditu. Egoera honen arduradun argiak daude. Enkarterrietarako aisian eta atsedenaldiran oinarritzen den etorkizuna aspaldi diseinatu zuten horiek. Hauen planetan ez da sartzen industria jarduera, eta ez sartzeaz gain, 2009/10erako Enkarterria Lurraldeplan Partzialean egin proposamenetan eskualdeko enpresak urruntzeko, ezkutatzeko edota ezabatzekeo beharra agertzen zen. Haien planen arabera, Enkarterri atsedeen leku bihurtu nahi dute, kapitalekoek lo egin dezaten, bigarren egoitza izan dezaten, aisia-leku izan dadin (golf zelaiak barne).

Enpresa handi guztiak desagertu badira ere (Mure, Reckitt, Pastguren,...), EAJk gobernatzen dituen erakundeak ukatu dira egoera hau irauliko duen eta Enkarterriko herritarrei lan etorkizuna bermatuko dien berrindustrializatzeko plana lantzerantz eta gauzatzera.

Gauzak honela, eskualdeko biztanleoi uzten diguten aukera bakarra, bizitza duina bermatuko digun lanpostua bilatu nahian lan bila emigratzean datza. Eta hortaz, epe motzean, bizilekuz aldatzera ere behartuko gaituzte, gazteek ahalik eta gertuen dagoen herria aukeratuko dutelako lanpostura iristeko. Horrela, egoera aldatu ezean, industria-basamortua jasan behar izateaz

gain, etorkizunak, ziuraski, Enkarterriko despulatze progresiboa ekarriko digu.

LABek Enkarterriko herritar oro animatzen du planifikatu diguten etorkizun horren aurrean etsipenean eror ez gaitzen, lan-etorkizuna bermatuko digun berrindustrializatzeko plana eska dezazuen, non baldintza duinak beteko diren gure ingurunean, ez gaitzaten behartu lanpostua bilatzera handik urruti, ez eta erabateko prekarietatean bizitzera, dagoen lan eskaintza mugatua delako.

Hau guztia eskatzeko eta lehen urrats moduan, alegia, CEL taldearen geroa bermatuko duen irtenbidea bilatze aldera eta hari eutsi diezaiozun, dei egiten diegu langile eta herritarrei irailaren 17an egingo den ibilaldi-manifestazioan parte hartzera. 11:00etan abiatuko da, Zallatik Gueñesera, CEL taldea osatzen duten enpresa batzordeek egin deialdiarekin bat eginez.

—